



BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI

1995eko ekainaren 16a. 16. zenbakia. Doan banatzen da.

*Soiñuak ariñ ekin dio
dantza gaitezen ariñ
Errolanen eriotza
dezagun egin.*

*Prantzian il nai bazuan
ez etortzea zuan
baztarrak asaldatzera
gure auzuan.*

*Gure etxean
jaun nai baitzuan
gaur illik dago
basuan.*

*Errolan, Errolan
Karlomagnoaren illoba.*


*Ta San Juan beti
etorri ta juan
ta San Juan beti
zaitut goguan.*

*Naparruatik Bizkayaraiño
Bordon dantza soiñuan.*


*Kanta dezagun
zer gertatu dan
Ibañetako basuan.*

Gora San Juan!

ALLURRALDE UDAL KIROLDEGIA



ANDOAIN
Tfnoa.: 30.01.47



2. SEIHILABETERAKO ABONUEN BERRIKETA

- ✓ Baja emateko epea, ekainaren 30a baino lehen.
- ✓ Seihilabeteko abonuekin jarraitzeko ez dute ezer egin behar.
- ✓ Seihilabeteko abonuen iraupena Uztailetik Abendurarte da.

SEIHILABETEKO TASAK

- | | |
|--|------------|
| • Familiarra: | 10.000 pta |
| • Banakakoa: | 6.600 pta |
| • Adin txikikoa, langabetua eta pensionista: | 5.000 pta |

UDA' 95KO KIROL EKINTZAK


- ✓ Informazioa eta izenemateak Kiroldegian.
- ✓ Izenemateko epea EKAINAREN 15an hasiko da

ALLURRALDE KIROLDEGIAN:

- Igeriketa
- Tenisa
- Aerobika
- Fitness
- Aquagim
- Mantenimenduko Soinketa

BURUNTZALDEAN:

- Hipika
- Orienting
- Parapente
- Pilota
- Piragua



Aurkibidea

1. AURKIBIDEA. ZE BERRI?

Joxe Arruti zizurkildarra.

2. INKESTA.

Eta zu, ordulariaren menpe bizi al zara?

3. LARRAUL.

Partehartze handia hauteskundeetan.
Herriko jaiak prestatzen.

4-5. ANDOAIN.

San Juan sua, jaien hasiera.
AEKren protesta.

6. ASTEASU.

Baserri babestuaren aurkezpena.
Joseba Elizegiren laguntza taldea.

7. BILLABONA-AMASA.

HBk Gobernu Batzordean egon nahi du.

8. ZIZURKIL.

Amaitu da sukaldaritza ikastaroa.

9-10-11. ERREPORTAIA.

Alkateak azkenengo lan egunetan.

12-13. KULTURA.

Cochiseren "Un alcalde en tiempos franquistas" liburua.

14. LEHIAKETA. SUKALDE TXOKOAN.

15. HEMEROTEKA.

16. AGENDA.

Ze berri?

Joxe Arruti

IDIAK UZTARRIAN HEZITZEN



ASTEASUKOIA IZATEZ: ZIZURKILGO BURRUSTIDI BASERRIAN BIZI DA; ERAIKUNTZAN LAN EGITEN DU; ZALETASUNA: GANADUA IDI-PROBETARAKO PRESTATZEA.

- **Azalduguzu zure zaletasun bori?**

- *Idiak erosten ditut oso gazte, baserrian bazi, eta uztarrian bezitzen ditut idi-probetarako saltzeko.*

- **Ze idi mota dira?**

- *Arazako idiak dira, ez dira baragitarako. tira egiteko bereziki erabiltzen dira. Portugaleko muga ondoan 2.000 metrotara dagoen Zamorako berri txiki batetik ekartzen ditugu. Euskal Herrian ez dago horrelakorik. Ekarri eta urte terdi betetakoan irendu egiten ditugu. Dena den, gero eta arazo gehiago dauzkagu, saneamendu kontrolak direla eta. Horregatik baserrian bertan basi gara idiak bazten. Gaur egun zortzi idi eta bost urrixa dauzkagu.*

- **Nola prestatzen dituzu?**

- *Gaztetan hartu behar dira. Batzuk ez dira bezitzen errazak, egoskor samarrak izaten dira, eta akuiluaz gogor emanaz gero, gehiago harrotzen dira. Batzuk arriskutsuak izaten dira, gutxieneoak, bala ere. Sei edo zazpi urte beteta daude tira egiteko sasoi onenean. Normalean asteburuetan aprobetxatzen ditut idiekin aritzeko. Bikote bakoitzarekin ordubate inguru egiten dut, hemen baserri inguruan.*

- **Nongo erosleak dituzu?**

- *Gipuzkoa osooak; nik dakidala saltzaile bakarra naiz. Bizkaia aldetik ere etortzen zaizkit, ban hemen baino zaletasun handiagoa dago.*

- **Ze prezioetan saltzen dituzu?**

- *Hori eroslearen arabera izan obi da, baina normalean 500.000-600.000 pezeta inguruan.*

- **Zenbat urte daramazu bonetan?**

- *Zortzi urte daramatzat. Baina ganadua beti izan dut gogoko. Nire aita zenak ere zaletasun handia zuen.*

- **Asko saltzen al duzu?**

- *Iaz bamazazpi idi saldu nituen. Ferietan ere ibiltzen gara. Jendeak ganadua ikusten du, ahoz abo zabaldu, eta etxera etortzen zaizkigu erostera.*

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oiartzabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia.
Banaketa arduraduna: Iñosen Mujika.
Administratzaile-eragilea: Kepa Sarasola.
Inprimategia: Gertu Kopp. E. (Zubillaga, Oñati).
Filmaketa: VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614 **Tirada:** 3.500 ale.



M. LARRAMENDI



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jasotzen du.




Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jasotzen du.

Eta zu, ordulariaren menpe bizi al zara?

Aldez aurretik susmatzen genuen gehientsue- nek baietz erantzungo zigutela, alegia, ordula- riaren menpe bizi direla. Hala ere, kalera irten eta egiaztatu egin nahi izan dugu. Eta pentsatu bezala, inor gutxi bizi da ordulariaren esklabu- zatik salbo: egunero trena edo autobusa hartu behar ez duenak, haurren eskolako ordutegia-

ren arabera moldatzen ditu goizak eta arratsal- deak; eta laneko ordutegia betetzeko, edota gustoko duen telebista saioa ikusteko ordula- riari hamaika aldiz begiratzen ez dionak, hura ere etengabe denbora neurtuko nahi izango balu bezala bizi da segunduak markatzen di- tuen erritmo biziaren menpe.



Jesus Sorondo, igeltsaria. Aduna.

Nik ez dut erlojurik erabiltzen, bizi-tza lasaiago bizi behar dela uste dut. Hala ere ulertzen dut erlojua era- bili beharra lanerako behinik behin. Korrika eta presaka bizi gara.



Maria Pilar Irazusta, etxe-koandrea. Asteasu.

Erlojuaren menpe bizi gara, beti presaka gabil-tza alde batetik bestera eta hori ez da ona baina horretara ohi- tu gara. Orain lasaiago nabil baina le- hen, etxetik kanpo lanean ari nintzela, eromena zen.



Matias Gonzalez, kale- garbitzailea. Billabona.

Gero eta okerragora goaz, ezin dugu erlojurik gabe bizi. Gero eta den- bora gutxiago daukagu gauzak egite- ko, denbora bera ez baitugu ondo bi- zitzeko erabiltzen. Ez dakigu bizitzen.



Juana Mateo, etxe-koandrea. Andoain.

Ordulariaren aurka lasterketa batean bezala bizi gara. Haurrak eskolara ordu ja- kin batzuetan eraman behar dira, enkar- guak, bazkariak ere prest egon behar du eguerdirako. Kanean beti eramaten dut or- dularia. Etxeko erlojua hamar minutu au- rreratuta izan ohi dut beti garaz ibiltzeko.



Susana Valderrabano, ikaslea. Andoain.

Egia esan ordulariaren menpe bizi naiz. Ordularirik gabe ez naiz inor. Ordularia etxean ahazten badut, etengabe galdetzen diet ingurukoei ordua. Behar-beharrezkoa dut. Bestalde, oso-oso puntuala naiz. Nor- malean, behar baino bost minutu lehena- go iristen naiz beti leku guztietara.



Igone Ugartemendia, idazkaria. Zizurkil.

Ez dut denborarik zuei erantzuteko (bere erreakzioa erlojuari begiratzea izan da). Orain enkargu bat egin behar dut. Ezin dut lanetik lehenago atera horrelako gau- zak egiteko eta beti presaka ibiltzen naiz. Normalean modu beti berdinean ibiltzen naiz, beti korrika.

Ormendia
Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



Jendearen partehartze nabaria

Udala osatzen duten kideak pozik daude



Ia herri osoak eman du botoa

Larraulgo hauteskundeetan lortutako emaitzen ondorioz Udaleko kideak pozik daude jendearen partehartzea handia izan baita. Udaleko hautagai zerrendaren osaketan herriak hartutako erabakiekin bat datoz hauteskundeen emaitzak. Hala nola, alkate berbera izango da datozen lau urteetan eta gainontzeko zinegotziak ere ia guztiak errepikatuko dute. "Udalari denbora asko dedikatu behar bazaio ere, oso pozik gaude herria oso gustora baitago gurekin. Egiten den lana ikusten da eta gure artean lan-giro polita dugu. Hori da garrantzitsuena" dio Antton Amonarriz alkateak. Ohitura duten bezala, Alkatearen karguhartzea egiten den egunean bazkari bat egingo dute udaletxean lanean aritu diren eta hemendik aurrera arituko direnek. Ekainaren hamazazpian izango da. Gerora batzordeen osaketa eta Herri Batzarra egingo dute herriaren beharrak zeintzuk diren jakin ahal izateko. Baina Anttonek dioen bezala "gauza bakoitza bere garaian".

Larraulgo jaiak prestatzen

Udako jaiak antolatzeko deia dute herritarrek.

Uda gertu dago eta jadanik jende artean jai giroa soma daiteke. Egunak luzatu egiten dira eta giroaren epeltzearekin kalera irtetzen gara, zereginik badago ere, bertan behera utzita. Larraulek ere badu zereginik. Abuztuan jaiak dituzte eta zer egin, nola eta nork antolatu zintzilik dago oraindik. Eginbehar horietan parte hartzeko deialdia zabaldu du Larraulgo Udalak.

Urtero bezala, Larraulgo jaiak denon artean prestatzeko asmoa dago. Larraulgo jaiak, San Estebanak, abuztuaren hiruan eta San Bartolomeak, abuztuak hogeita lauan ditugu. Herri txikia baina jai ugari eta onak, gainera. Hori ez da nolana lortzen eta urtero jende asko biltzen da jaiak prestatzeko. Gazteak, ezkonduak, helduagoak... Denon gustokoak izan daitezten denetarik egon behar. Beraz, eta aurten ere jaiak giro berberean igaro ahal izateko herritar guztiak zita duzue ekainak hamaseian, gaueko bederatzit erdian udaletxean. Bertan erabakiko da jaien egitaraua. Zuen partehartzea ezinbestekoa da jaiak behar bezala prestatzeko.

Larraul

LIBURUDENDA



**LIBURU AUKERA
EDERRA PRESTATU
DUGU ZURETZAT**

Agustin de Leitza 27 ANDOAIN % 59 16 03


OCTAVIO CANORA
Dr. Huizi, 8 behea
ANDOAIN

PAPIRO

KALITATE HAUNDIKO
KOADERNAKETAK

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



San Juan sua, jaien hasiera

Bordon dantza kantatuko da aurrenekoz

Eguzkia eguerdian puntu gorenean jartzen den egunean eman izan zaio urtaro berriari betidanik hasiera. Horixe izan ohi zen lehen eta orain urteko egunik luzeena, eta gaurik motzena. Hastapena su handi batez ospatzen da, Elizak San Juan sua deitu izan duena, alegia. Herri askotan, Andoain bezala, bat etortzen dira eguzkia gurtzeko antzinako ohitura eta herriko jaiak.

Lizar Makil dantza taldearen iharduera 1980. urtean bukatu zen, baina alde zuzen gaur egun andoaindarrek estimu handian dute Axeri dantza berreskuratu zuten. 1976ean aurkeztu zuten, eten luzearen ondoren, lehenengo aldiz herrian, eta geroztik herritarrek ekitaldi horretan parte hartzea eta biltzea lortu dute. Beste hainbeste egin dute San Juan Zortzikoaekin. Iaz gainera, Udal agintariek San Juan Zortzikoa dantza egin zezaten lortu zuten. Urtero huts egin gabe eraberritzen dute tradizioak baditu, gainera, beste eragigarri batzuk Aitor Amutxastegik eta Juantxo Arregik konstatu digutenez, hain zuzen ere, betiko lagunak elkartu eta eguna jai giroan ospatzeko aukera ematen die.

Bordon dantza

Aurten, aurrenekoz, Inttui abesbatzak Bordon dantza kantatuko du San Juan bezperan, euskaldunek Orreagan Errolanen soldaduen aurka lortu zuten garaipena gogoratzen duen kanta. Garai batean Beterri eta Goierri osoan zabaldua egon zen arren, Tolosan dago berez, gaur egun, errotuen. Tolosarrek, bestalde, ez dute bordon dantzan Ibañetako mendatean euskaldunek Errolanen aurka lortutako garaipena gogoratzen; gipuzkoarrek bostehun urte geroago nafarren aurka Beotibarren lortutakoa, baizik.



Suak eman obi die jaiari hasiera

EAJ-PNVren salaketa eta gaitzespena

Hauteskunde kanpaina egunetan, hautagai batzuen karteletan pintaketak agertu ziren, hala nola zenbait erakunde publikoetako hormetan. Bestalde, eta EAJ-PNV alderdiko kideek adierazitakoaren arabera, euren hauteskunde egoitzako atea indarrez irekitzen saiatu ziren baten batzuek. Jende aurrean gogo salatu nahi izan dituzte basatizat hartu dituzten ekintza horiek.



XALBARRE MUSIKA ESKOLA

- Solfeoa 4urtetik gora
- Akordeoia maila guztiak
- Armonia maila guztiak

MATRIKULA ZABALIK

Ondarreta kalea 8 Bis. Behea ☎ 30 00 82



KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxa 30 03 45
ANDOAIN

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK
EDURNE**

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN



AEK-K kalean egin zuen protesta

“Helduen euskalduntzeak akordioak behar ditu”

Hauteskunde kanpaina aprobeztatuz AEK euskalte-giko kideak pankarta baten laguntzaz eta orriak banatuz egin zuten protesta alderdi politikoek beren hitzaldiak egin zituzten egunetan. “Gure asmoa protestatzea baino”, argitu digu Joxemi Aranburu AEK-ko kideak “arazoak bere horretan jarraitzen duela adieraztea izan da”.

Orain dela urtebete sinatu zuten AEK-k eta Eusko Jaurlaritzak bi erakundeen arteko elkarriketa eta konponbiderako bidea jarriko zuen aurreakordioa. Urtebete igaro da eta AEK kexu da praktikan aurrerapausorik eman ez delako: “Egia da hura garrantzitsua izan zela” esan digu Joxemik, “baina Aste Santua geroztik ez dugu Jaurlaritzarekin inongo harremanik izan, eta orain arte akordioa oztopatu duten gaiak ez zaie konponbiderik jarri”.

Eskola ematen hiru urte baino gutxiago egin duten irakaslearen diplomaturaren auzia, euskaltegiaren izaera juridikoa eta aurtengo dirulaguntzak dira akordioaren hiru puntu eztabaidatsuenak: AEK-k hiru urte baino gutxiago irakasten aritu diren irakasleei titulua eskatu beharrean

prestakuntza berezia eskaini behar zaiela esaten jarraitzen du. Bestalde, AEK-k ez du onartzen Jaurlaritzak eskatu bezala, euskaltegi bakoitzak bere izaera juridiko propioa izatea; AEK-k osorik bakarria izaten jarraitzearen aldekoa da. Azkenik, oraindik ez dakite aurtengo dirulaguntzak zenbatekoak izango diren, baina kopurua ez dela handia-gotuko adierazi diete Jaurlaritzatik.

Horrelako ekintzez gain, euskaltegiaren ikasleak Jose Antonio Ardanza lehendakariari ari dira gutunak bidaltzen konponbidea bultzatzen eskatuz. Ekainaren 10ean Bilbon egin zen manifestaldiak ere helburu bera izan zuen.



HBk hitzaldi eman zuen egunean



FERMIN LAGALA ASKE

Maiatzaren 24ean eman zioten ongiatorria Fermin Lagala Urkia andoaindarrari hamaika urte preso igaro ondoren. Ehundaka pertsona bildu ziren Bekoplazan. Handik bi egunetan antolatu zuen Amnistiaren Aldeko Batzordeak omenaldia. Herriko hainbat talde bildu ziren bertan omendu eta opariak eskaintzeko. Txalapatari eta aurrekuari hitzaldiek jarraitu zieten. Bukatzeko, manifestazioa egin zen herriko kaleetan zehar.

MENDI
AUTOESKOLA

AGUSTIN DE LEITZA, 11 - ☎ 300604
20140 ANDOAIN

TINTATEGIA GARBITOKIA

Garbiketak lehorrean eta bustian era guztietako arropak, mantelak, gortinak, alfonbrak...

Arrate kalea 3 ☎ 59 39 79
ANDOAIN



BORDA Jateetxea

A N D O A I N



Baserri babestuaren aurkezpena

Gizarte Egoitza ere bertan ezarriko dute

Kale Nagusiko eraikuntza berrizatuak izango duen izaera eta helburuak aurkeztu berri dituzte. Baserri tutelatua eta Gizarte Zerbitzua kokatuko dituzte bertan eta azaldu dutenez, "eraikuntza, herritarren partaidetza bideratzeko eta herriko behar eta asmoak gauzatzeko egin da".

Gizarte Zerbitzuko diputatu den Elvira Kortajarenak, Ernio-Beheako Udaletako ordezkariak eta bertako Gizarte Zerbitzuko langileek aurkeztu dute egitasmoa, eraikuntza egin duen arkitektoarekin batera. Argi utzi dute denek administrazioaren ardura dela gizarte zerbitzuak eskaintzea baina beti ere, herriko talde eta jendearen partaidetza ziurtatuz; administrazioaren eta herritarren arteko elkarlana lortuz.

Eraikuntzak bi solairu eta teilatupea ditu eta azken honetan apartamentu bat dago, behar duenari denboraldi txiki batez uzteko. Honez gain, bi logela eta bainugela bat daude, baserri tutelatuari dagozkionak, lehenengo solairuko lau logela eta bi bainugelekin batera. Sei logela horietatik hiru bikoitzak dira oraingoz baina "etorkizuneko beharren arabera denak bikoitzak bihur daitezke" azaldu zuten. Beheko solairuan berriz, sukaldea eta jangela daude; baserri tutelatuko bizilagunentzat eta herritarrentzat ere irekia egongo da. Baserri tutelatua egoera larrian dauden bizilagunei

dago gehienbat zuzenduta; hirugarren adinekoek eta herriarrek izango dute lehentasuna. Azpimarratzekoa da pertsona elbarriek ezingo dutela bertako bizilagun izan.

Beheko solairuan era berean gizarte zerbitzuko gela egongo da eta jangelarekin batera, herriko taldeei irekia egongo den gela, bertan nahi dituzten kultur aktibitate eta bilerak egiteko. Behin eta berriz azpimarratu dute gela horiek hirugarren adinekoentzat soilik ez direla eta herriarrek, Udalarekin bat, erabakiko dutela eraikuntzaren funtzionamendua.



J. Elizegiren laguntza taldea: "Gure helburua bete da"

Joseba Elizegi gaztearen heriotzaren ondoren, prentsaurrea eskaini zuen herrian sortutako laguntza taldeak Josebaren aitarekin batera. Bertan, taldearen sorreraren, burututako ekintzen eta lortutako diru kopuruaren berri eman zuten. «Familiari dirulaguntza eskaintzeko sortu genuen taldea eta behar zen dirukopurua lortu dugu» adierazi zuten taldeko kideek. Gainera, behar zen baino diru gehiago lortu dutela eta, soberan dagoen diru kopuruarekin zer egin erabakitzeke dago.



Herritarrek prentsaurrean

Beraz, eginiko lanaren balorapen ona egin dute eta aurrerantzean beren ekimenak arrastoa utziko duelakoan daude.

OGI ZURi

Okindegia

ZURI ZURIA...

Lizarra kalea, 32
☎ 69 18 96 ASTEASU

OGI-GOXO

Okindegi eta Gozotegia

EDO BELZTUXEAGOA,
BAINO GOXO
GOXUA!!

Kale Nagusia, 26
☎ 69 32 94 BILLABONA



HBk Gobernu Batzordean parte hartu nahi du

Bidean taldeari luzatu dio eskaera

Hauteskundeen emaitzen arabera Herri Batasuna da Billabonan bigarren alderdi bozkatuena. Ondorioz eta prentsaurrean adierazi dutenez, herriaren eskakizunak kontuan hartuz, Gobernu Batzordearen partaide izatea dagokie botoen arabera. Herri Batasunaren nahia hauxe da: herriaren eskakizunak benetan ordezkatuak izatea.



Itxaropentsu agertu dira

Hauteskundeen ostean alkatearen karguhartzea, Gobernu Batzordea eta gainontzeko batzordeen eraketa antolatzen aritu dira Udaltaldeak. Emaitzen arabera, alkatetza Bidean talde independenteari dagokiola adierazi du HBk. Era berean, eta bigarren partidu bozkatuena den neurrian, Herri Batasunari Gobernu Batzordeko partaidetza dagokiola: "Herritar multzo handi batek Herri Batasunari eman dio botoa. Guk Gobernu Batzordean parte hartu nahi dugu herriaren eskakizunak eta nahiak benetan udaletxean ordezkatuak izan daitezen" adierazi du Pello Garmendia zinegotziak, "Gobernu Batzordean egon behar dugula uste dugu eta era berean Bidean alderdiari bide horiek errespetatu dituzan eskatu diogu. Bidean inongo alderdiri lotuta ez dagoela ikusirik, gure eskakizuna kontuan hartuko dutela uste dugu" gaineratu dute.

Herri Batzarra

Ekainaren lauean Herri Batasunak Herri Batzarra egin zuen. Bertan bildutako herritarren artean hau-

teskundeen emaitzen balorazioa egiteaz gain, datuzen lau urteetan egin beharrekoak eta nahiak eztabaidatu eta argitu zituzten. Udalean herritarren partehartze zuzenagoa egon behar dela uste dute. Horretarako egun dauden batzordeen berregituraketa eta berrantolaketa jotzen dute behar-beharrezkotzat, giza talde eta arlo ezberdinek merezitako partehartzea eta erantzukizuna izan dezaten. Horrez gain, Gobernu Batzordeak irekia izan behar duela adierazi dute.

Udalean egin behar asko badago ere, herriko beste esparru batzuetan ere lan egin behar dela adierazi dute Herri Batasunako zinegotziak, alegia, Udalaz gain beste gune batzuk daudela arazoei aurre egiteko, eta horiek Udal iharduera bezain garrantzitsuak direla.

Billabona-Amasa

fotocolor

ERREBELATUA ORDU LAN

**Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.
Lan Industrialak**



Jose Ignacio Unanue
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32
20.140 ANDOAIN

ILEAPAINDEGIA
GARBIÑE

Bulandegi kalea 13 - 3ºD
Tel. 69 05 99 ZIZURKIL

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA

Amaia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

ZIZURKIL



Amaitu da sukaldaritza ikastaroa

“Janarien iraupena luzatzeko moduak landu ditugu”

Maiatzeko asteazkenetan bildu dira San Millan ikastetxean ikastaroan parte hartu duten emakumeak. Hogei emakume izan dira guztira, eta Iñaki Trueba irakasle gasteztarrak esan digunez, “zenbait truko eta berezitasun besterik ez diet erakutsi, emakume gehienak lehenago ere janari ugari kontserbatzen bazekiten eta”.



Zintzo-zintzo atera ziren denak ikastarotik

Janaria zergatik galtzen den azaldu zuten lehenengo ikastaro egunean, janari bakoitzak duen iraupena ere adieraziz. Ondoren, janarien iraupena luzatzearen abantailak eta hori zein metodok erabiliz egin daitezkeen erakutsi zuten. Ikastaroak klase teorikoak eta praktikokoak izan ditu: “Klase praktikoa kontserbarik sinpleenak egin ditugu, sukaldea nahiko txikia baitzen eta gainera zenbait barazki eta fruitu heltzeko zeuden”. Klase teorikoetan berriz, kontserbatzeko prozesua azaldu zuten eta janaria ondo kontserbatzeko moduak ere erakutsi zituen.

Barazkiak, fruitu, arraia eta antzeko janariak kontserbatzen ikasteaz gain gazta, pateak eta antzeko gauzak egiten ere ikasi dute emakumeek, Iñakik dienez “janariaren bizi iraupena era askotara luza daiteke; esnea gazta bihurtuz, esate baterako”. Beraz, janaria ez da pote batean sartuz kontserbatzen soilik, modu ugari daude janariari etekina ateratzeko. Iñakik esan digunez, “haseran, baserriarentzat bideratu zen

ikastaroa, hauek baitira janariaren iraupena luzatzeko beharra izaten dutenak”, baina baserriar ez direnak ere hartu omen dute parte ikastaroan. “Jende ugari dauka janariak kontserbatzeko ohitura eta beraz, hau lantzeaz gain, janariarekin egin daitezkeen kontserba modu ezberdinak erakutsi dizkiet” gaineratu digu ikastaroko irakasle izan den Iñaki Truebak.

Joseba Otaegi eskolarteko bertsolari txapeliduna

Hirugarren postua Jon Ormazabalentzat izan zen



Pedro Mari Otaño ikastetxeko Joseba Otaegi Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketako txapeliduna dugu. Hirugarren postua beste zizurkilidar batentzat izan da, ikastetxe berekoa, gainera, Jon Ormazabalentzat, alegia. Eta ikastetxeak berak aipamen berezia jaso du txapelketan.

Aurrenekoz hartu du parte Josebak bertso-paper lehiaketa batean, eta aurretik parte hartzen jarraitzeaz gain, jende aurrean kantatzea gustatuko litzaiokeela ere esan digu. Lehen ere soinua jotzen plaza batean baino gehiago ibili omen da, eta horrek ez du beldurtzen. Eskolan bertan eman ditu bertsolaritzan lehenengo urratsak. Eta orain bertso eskolaren batean jarraitzeko gogoia dauka.

BEIBATEGI

J A T E T X E A

Bulandegi bidea ZIZURKIL ☎ 69 21 78

- Eguneroko menua
- Bataioak
- Jaunartzeak
- Ezkontzak



AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazterientzat!!

ZIZURKIL



Alkateak azkenengo lan egunetan

Aurrikuspen gehienak bete egin dira

Gaur arte alkatetzan jarraitu dute M. Pilar Collastek Andoainen, Eduardo Labordek Billabona-Amasan, Mikel Arrastoak Zizurkilen eta Asintxio Iturbek Asteasun, hauteskundeen emaitzen arabera edota hautagaiak izateari utzi diotelako, gobernu berriak osatu bitartean azkenengo bi aste hautean beren eserlekuak uzteko gertutzen aritu badira ere. Joan eta berriari lekua egin aurretik, azkenengo akordioak sinatu behar

izan dituzte, alegia, egitasmoak bideratuta eta ongi "lotuta" utzi. Hauteskunde egun bezperan beraiekin elkartu eta aurrera eta atzera begiratzuz Udalari, bertako gobernuari, egindako eta egiteke geratu diren lanei buruz beren iritzia jaso nahi izan dugu. Nola ez, hauteskundeak eta emaitzak ere izan genituen hizpide. Nork bere aurrikuspenak egin zituen. Eta, gainera, nahikoa zuzen ari zirela ikusi ahal izan dugu.

EDUARDO LABORDE, Billabona-Amasako Alkatea (EuE)

"Partehartzea handia bada guk irabaziko dugu; HBk bestela"

Hauteskunde kanpaina atez ate propaganda orriak banatu zituzten biharamunean hitz egin genuen Eduardo Labordekin, Alkate bezala ez bada, zinegotzi bezala behintzat, beste lau urtez Udalean lan egin behar-ko zuen ziurtasunez. Denboran atzera eta aurrera begiratzuz hitz egin genuen. Udalean dagoeneko hamabi urte eginak ditu: lehenengo lau urtetan EE alderdiko zinegotzi izan zen, beste hurrengo zortziak Alkate bezala, independenteen artean lehenengo, EuEren baitan gero. Gaur egun sortu berri duten BIDEAN alderdian jarraitzen du politikan.

- *Nolakoa izan da legealdia?*

- *EAJ-PNV eta EArekin gobernatu dugu. Gebiengo zabala izan dugu eta ez dugu aparteko arazorik izan. Oposizioak, HBk, batzordeetan parte hartu du, baina oposizioa gure akordioak kri-*

tikatzerara mugatu da, gebienetan apor-tazio handirik egin gabe, alde borretatik buts egin dutela iruditzen zait. Pre-soei buruzkoak bezalako mozio poli-tikoetan aurkeztu izan direnean na-hikoa liskar izan da.



- *Zuen lorpenik handiena?*

- *Arau subsidiarioak abo batez onar-tzea, zalantzarik gabe. Bestetik, autobi-dearen trazaketa herritik urruntzea ere garrantzitsua izan zen.*

- *Zer gelditu da egin gabe?*

- *Babes ofizialeko etxebizitzak. Bage-nekien ezingo genituela lau urte haue-tan lortu. Urratsak, behintzat, eman di-tugu epe laburrean eraikitzeko.*


- *Zergatik alderdi berri bat?*

- *EAJ-PNVtik nabiz PSE-EEtik izan ditugu beraiengana biltzeko eskaerak, baina ez gatoz bat beren ideiekin. Ga-rai bateko EEren oinarritzko ideiei eus-ten diegu. Horregatik sortu dugu alder-di berria. Aipatzekoa da bestalde, inoiz baino zailtasun gutxiago izan ditugula zerrendak osatzeko, inongo alderdiren izenburupean aurkezten ez ginelako.*

- *Zer gertatuko da hauteskudee-tan?*

- *Partehartzea handia bada, guk ira-baziko dugu, bestela HBk. Astelehenera arte ezin dizuet ondorengo balizko bi-tzarmenei buruz hitz egin.*

UDAL HAUTESKUNDEEN EMAITZAK



PILAR COLLANTES, Andoingo Alkatea (PSE-EE)

“Boto gehien jasotzeko moduko gestioa egin dugu”

Lau urte alkatetzan egon ondoren, legealdiko azkenengo agiriak sinatzen aurkitu dugu Pilar. Udala utzita Lan Ministerioan utzitako lanera itzuli eta Zuzenbide ikasketak jarraituko ditu. Hala ere, bere alderdian lanean jarraituko du hautagai zerrenda berrian ez aurkeztu arren; bere familian sozialisten tradizioa ez omen da oraingoa. Hona hemen hauteskunde bezperan izandako elkarrizketa:

- **Zergatik ez zara aurkeztu?**
- Arrazoi pertsonalak, alderdi mailakoak..., era guztietakoak daude.
- **Nolako izan da esperientzia?**
- Oso gogorra, baina interesgarria. Guk bartu behar izan dugu gobernuaren pisu osoa. Bestalde, andoaindarrekin izan dudana esperientzia oso aberasgarria izan da.
- **EAJ-PNVrekiko bereizketak asko baldintzatu al du gobernuak?**
- Zailagoa izan da konpromezu handietara iristea. Baina giroa “bake-tsuagoa” izan da; EAJ-PNVrekin gatazka handiak izan genituen. Funteszko ideia politikoetan ez ginen ados

jartzen: guk gure ezkerreko ideiak defendatzen genituen, eta beraien beren eskuineko ideiak. Bateriaezinak ginen. Bereizketaren erantzukizuna beraina izan zela uste dut, ez zuten zenbait gaitan amore eman.


- **Eta beste alderdiekiko barrenak?**
- Gai nagusietan elkarrizketa eta elkarrulertzea nagusitu dira: etxebizitzak, ongizate arloko gaiak... Beste batzuetan berriz, ez gara ados jarri: aurrekontua, ikastetxeen finantzaketa...
- **Zer geratu da egiteko?**
- Babes ofizialeko etxebizitza gehiago. Denbora faltagatik kulturaren hainbat gai kolokan geratu dira, baita futbol zelaiko belar artifiziala ere.
- **Zuen lorpenik handiena?**
- Kirolegiaren eta Eguneko Egoitzaren bidez garatutako kirol eta ongizate sozial arloak. Etxebizitzak eta industrialdea garatzeko onartutako plan partzialak ere oso garrantzitsuak izan dira.
- **Erabakirik zailena?**
- Zalantzarik gabe, ikastetxe pribatuaren finantzaketa onartu behar izatea; gure ideologiaren aurka dago. Au-



rrerakontuak aurrera ateratzeko amore eman genuen.

- **Hauteskunde kanpainan gobernu falta leporatu zaizue askotan?**
- Begibistakoa da orain dela lau urteko herria ez zela oraingoa; mar-txan jarri dugu Andoain.
- **Zer iritzi duzu “abertzale demokratikoen batasunaz”?**
- Nire ustez nazionalismoa ez da herri honen etorkizuna. Nazionalismoak norik bere buruari bakarrik begiratzea esan nahi du.
- **Zer gertatuko da hauteskundeetan?**
- Boto gehien jasoko duen alderdia izateko moduko gestioa egin dugu-lakoan nago. Ez zait iruditzen IU-EBk botorik kenduko digunik; ez dute alka-tegaiarekin asmatu.
- **Eta gero...?**
- Alderdi demokratiko guztien ba-tasuna litzateke zentzuzkoena. Gobernu hitzarmena errespetatu eta HB iso-latu behar dira.

UDAL HAUTESKUNDEEN EMAITZAK



OHARRA

Hauteskunde biharamunean AIURRIK kaleratutako informazio orrian hainbat oker zeuden. Ale berri honetan zuzenketak egiteko aukera izan dugu: Billabonan EAri zinegotzi bakarra zegokion, eta guk bi jarri genituen. HBri berriz, zegokiona baino bat gutxiago, alegia lau zinegotzi ditu guztira. Andoingo IUK 545 boto jaso zituela zioen orriak: 439 jaso ditu berez.


MIKEL ARRASTOA, Zizurkilgo Alkatea (HB)

“HBk alkatetza lor ez dezan elkartuko direla susmatzen dut”

Hamar urte egin ditu alkatetzan, Udal berriak osatu ziren garaietan hasi eta gaur arte. Aurrerantzean ere alderdiari eta herriko lanari lotuta jarraituko du, ez baitaki, berak dioenez, “inongo saltsatan sartu gabe” bizitzen. Boto gehien lortu dituzten zalantza izpirik ez dauka, baina bestelako susmorik ere badarabil buruan.



UDAL HAUTESKUNDEEN EMAITZAK



tamendua. Bi urtez egon zen Udala geldia. Ez dut uste eman ziztaion tratamendua eman behar ziztaionik. Gaia desbideratu egin zen.

- **Onena?**

- Nazioarteko kooperazioan lan eginez El Salvadorren izandako esperientziak erakutsitako guztia: gizatasuna, elkartasuna...

- **Okerren bat egingo zenuten?**

- Beharbada, zenbait gaitan hartutako akordioen jarraipen eta kontrol zehatzagoa egin behar genuen: zenbait eraikuntza, lizentzia batzuk... Bestalde, hartutako zenbait erabakien inguruan informazio gehiago eman behar genien, beharbada, herritarrei arrazoiak argi azalduz.

- **Nolako gobernua izan da zuena?**

- Ez da Gobernu batzorderik izan, erabaki guztiak Udalbatzak hartu ditu. Hala ere, HBk eraman du dinamika handiena. EAJ-PNVk nabiko jarrera irekia izan du. EArekin enfrentamendu gehiago izan ditugu.

- **Eta emaitzak, zer?**

- Zalantzarik gabe, lehenengo indarra izango gara. Baina alkatetza “kentzen” saiatuko direla uste dut besteetan baino kementsuago.

- **Zeintzuk izan dira urte hauetako erabakirik garrantzitsuenak?**

- Nekazal planifikazioa aurreneko legegaldian. Arau subsidiarioen planifikazioa ondoren, eta azkenengo urteetan behaldeko Udal bulegoak, Kultur Etxea eta abar sortuz, ekipamenduaren dispersioari aurre egitea.


- **Esperientziarik latzena?**

- 1981an Joxe Arregiren monolitoak eragin zuen enfren-

ASINTXIO ITURBE, Asteasuko Alkatea (HB)

“Ez dakit alkatetza lortuko dugun...”

Zortzi urtez alkatetzan egon ondoren ardura uzteko gogoz dagoela iruditu zaigu berarekin hitz egin ondoren. Bestalde, berrikuntza beharrezkoa delakoan dago. Hauteskunde hauetan EA, EAJ-PNV eta zenbait independentek bat egin dute EAren izenpean. Horrek HBren garaipena zailduko zuela esan zigun Asintxiok bozketa egun aurretik, hala nola euren arteko ezberdintasuna areagotu egingo zuela.



- **Zer nolako gobernua izan da zuena?**

- Bakarrik hartu behar izan ditugu erabaki guztiak. EAk ez du inongo batzorderetan parte hartu, -antza, ez dira ordutegiarekin ados jarri-.

- **Lanik gogorrena?**

- Arau subsidarioak onartzea. Onartu bitartean beste bainbat proiektu aurrera atera ezinik egon gara. Liskarrik gehiena ere horrek sortu du,

txaletak zirela eta.

- **Erabaki okerririk bai?**

- Gasarekin pixka bat itxaron izan bagenu...

- **Herritarrekin barromanik izan al duzue?**


- Proiektu batzuetan parte hartu dute. Kexatzera ere etorri izan dira.

- **Ze lan geratu dira egiteko?**

- Etxebizitzak legegaldia bukatu aurretik egiten hasi nahi genuen. Dena den, gaia ongi bideratutako dago.

- **Eta hauteskunde emaitzak?**

- Guztiak elkartu dira gure aurka. Boto gehienak ez dakit guk jasoko ditugun. Alkatetza lortzen badugu, orain arte bezala, oposizioa batzordeetan parte hartzeraino gonbidatuko dugu.



Billabona

“Un alcalde en tiempos franquistas”

Jose Ignacio Sanz, “Cochise-ren”, lehenengo eta... azken liburua

“Cochise” deitzen diote Billabona eta inguruetan dituen lagun eta ezagun ugariak. 53 urte dauzka, eta bere lanbidea mekanika izan da. 60ko hamarkada aukeratu du bere liburuaren trama kokatzeko, gerra ondorengo frankismo garaia, oroimenean bizi-bizi dauzkan urteak baitira. Orri bat bestearen atzetik idazten ari zela, ez zuen uste bere liburuak argia ikusiko zuenik. Hala ere, argitaratu, eta bi astetan 850 ale saltzeko gauza izan da, herri honetan idazle ezagun askok kostata egiten dutena. Hasieratik zekien ez zuela Literatura Unibertsalaren ondare bilakatuko zen lanik idatziko; ez zen hori bere asmoa, bere bizilagunek irakur zezaten baino ez zuen nahi. “Cochise” ez da idazle aritua; liburua irakurri eta gero ordea, nolabaiteko idazle sena somatzen da berezkoa duen estiloan.

“Franco seguía inagurando pantanos, Masiel ha ganado ‘Eurovisión’, Bahamontes el Tour de Francia”, ezin adierazgarriago deskribatu du Cochisek 60ko hamarkada bere liburuan; “Asteasura neskekin dantza egitera joaten ginen urteak ziren” azaldu digu “nahiz eta azkenean herriko baserritar gazteak ziren neska laguntzen egiten zutenak, ‘guk hasitako lana bukatuz’”. Billabonari buruzko aipamen zehatzik ez du egiten, baina herria gutxi ezagutzen duena ere konturatuko da paperfabrika eta beste hainbat ezaugarri egiten dizkien aipamenak ez direla debaldekoak. Pertsonaiak berriz, garai horretan, Euskal Herriko edozein herritan aurki zitezkeen pertsonaiak dira: injustiziak zapuztutako gizon errebeldea, alkate tiranoa, idazkari koipetsua, ETako militantea, erregimenaren aldeko apaiza, hala nola porrot egindako margolari bat, Ameriketara alde

egindako bizilagun bat eta baita emakume galiziar prakazale bat ere. Alegia, herria edozein izan daiteke baina Billabona gogorazten du, eta pertsonaiak unibertsalak izan arren, berezko nortasuna ere badute. Horixe izan da, ziur aski, “Cochiseren” lorpenik handiena, pertsonaia tipikoak izanik, bizitza propioa ematea.

Umore beltza

“Cochise” literatur generoren baitan sailkatu beharko bagenu, zalantzarik gabe, tragikomikoen artean edota umore beltza lantzen dutenen artean kokatuko genuke. “Cochiseren” pertsonaiak oso gizatiarrak dira, guztiei darie tragedia kutsua, eta egileak ez dauka batere erreparorik eztenkari eta ironiaz beren barne gatazkak eta mindurak azaleratzeko. Batzuk patetikoak dira, guztiak gizaixo hutsak. Tragikotasunak, ordea ez du umorea galerazen, eta billabonata-

UN ALCALDE EN TIEMPOS FRANQUISTAS

COCHISE



rrak berezkoa duen umorez idatzi du liburua. Irakurleari irribarre sano-sano eginarazten dio “Cochisek”, ez pertsonaien gertatzen zaien tragediak barregarriak direlako, egilearen adierazteko forma halakoa delako baizik.

“Bururatutako guztia idatzi izan banu...”

Idazten ari zela, istorioak nondik nora joko zuen ideiarik ere ez omen zeukan. Egunen batean, berandu baino lehen, bukatu egin behar zuela baino ez zeukan garbi. Horrega-

Lirauuna


KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN

Ikatzza Taberna

GIRORIK JATORRENA !!

Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN



“Cochese”

itik, idazten ari zela ez zekien panfleto politiko bat idazten ari zen, nobela historiko bat lantzen ari zen, edota biografia ezkutu bat zen, “60ko hamarkadako jendearen sentitzeko, bizitzeko forma isladatu nahi izan dut, besterik gabe” argitu digu. Bera ez da ezein pertsoniarekin identifikatzen, hala ere batzuk eta besteak deskribatzeko inguruko lagunak eta bizilagunak izan ditu eredu.

“Voy a sacar todo lo que tengo dentro de mi. Lo bueno y lo malo” dio hitzaurrean, eta guk istorioa idaztean gehiegi ez ote den inplikatu galdetu diogu. Galderak ez du harritu, eta askotan “mihia jan” egin behar izan duela esan digu, alegia autozensura pixka bat izan duela “nigatik

izan balitz, guztiak larrutuko nituzke, baina...”. Esandakoak esanda, eta esateke geratu direnak susmatuta, ezin da ukatu eguneroko bizitzako xehetasunen bidez urte haietako pentsaerak eta ideologiak isladatzea lortu duela.

90eko hamarkada


Istorioaren amaiera gogorra eta bortitza da, hala nola hunkigarria, Burgoseko prozesuaren ondorengo hilketak gogorazten dute: “Liburuari ezin nion beste amaierarik eman. Urte haiek oso beltzak izan ziren, eta hainbat eta hainbat gertaera oso mingarriak”. “¿Qué ha cambiado desde entonces?”, galdetzen dio bere buruari liburuaren azkenengo orrietan, “Los socialistas estan en el poder, aquel sevillano de chaqueta de pana que ilusionaba con tantas promesas en los mitines. Vamos a la cabeza de Europa en el paro, en la droga. Los segundos en corrupción...” era horretan egin du “Cochisek” bizi ditugun urteon kronika partikularra, hori bai umore ona galdu gabe: “Antes vendían cupones los ciegos y ahora, ni siquiera son bizcos. Obviamente ahora todo es distinto”. Dena ezberdin izan arren, azkenengo 30 urteetan Euskal Herrian funtsezko aldaketarik ez dela eman pentsatzen du billabonatarrek, eta hainbat arazo bizirik dirautela.

“Lehen kupoiak
itsuek saltzen
zituzten, gaur egun
betokerrak ere ez
dira”

Langabezian zegoela hasi zen liburua idazten, gaez normalean, sagardotegitik itzuli ondoren askotan. Bukatu zuenean koadernatu eta etxean gordeta eduki zuen. Lagun bati irakurtarazi eta herri mailan argitaratzeak merezi zuela esan zion. Ez editorerik, ez banatzailek, Madrilgo lagun batek berak eskuz idatzitakoa makinaz pasatu, inongo zuzenketarik egin gabe, inprimategira eraman ondoren Arnasa eta Euskalduna tabernetan salgai jarri eta 850 liburu saltzera iritsi zen lehenengo hamazazpi egunetan. Herrian zein motatako erantzunak jaso dituen galdetu diogu, eta harro esan digu jende ikasiak egin dizkiola kritikarik onenak.

“Hitz itsusi
gehiegitxo
eskolaumeak
irakurtzeko”

Eskoletan historia erakusteko ez zaigu ikasgai txarra iruditu. “Cochise-ri” ez zaio ideia batere gustatu, hitz itsusi gehiegi idatzi omen ditu. Lagunek bigarren liburua idaztera animatu dute. Momentuz inongo asmorik ez duela esan digu, lana oso neketua izan baita.



KARROZERIAK
LAGUNAK^S

TXAPA ETA PINTURA
EGA ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK

SORABILA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN




ALOTZ
IZOZKINAK

KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN

NOR DA PERTSONAIA EZKUTUA?



Irabazleak **Andoaingo Ormendi kirolak** eskaini digun **motxila eder bat** jasotzeko aukera izango du. Lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, bidal itzazue zuen erantzunak Andoaingo Doktor Huizi kaleko 15. zenbakira izen-abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziz. Zorte on!



ESNEGAINAZ ETA KAMELUTAN BUSTITAKO INTXAURREZ BETETAKO UDAREAK ARDOZUKRETAN


Aguerre II. erretegia Asteasu



Osagaiak:

- Lau udare eder
- Litro bat Errioxa ardo
- 150 gr. azukre
- Kanela makila erdia
- Limoi azala
- 2 dzl. esnegain likidu
- 50 gr. intxaur zuritu

- 1- Udareak zuritu eta txurtenak gorde. Ardoarekin, kanelarekin, azukrearekin eta limoi azalarekin batera udareak egosten jarri. Egozitakoan lapikotik atera eta hozten utzi.
- 2- 100 gr. azukrez, limoi tanta batzuez eta ur pixka batez karamelua egin. Ondoren intxaurrak karamelutan busti eta olioaz igurtzitako plaka baten gainean utzi.
- 3- Esnegain likidua harrotu arte irabiatu.
- 4- Labana batez udareen oinarriak ebaki tente geldi daitezen. Txurtenetik zentimetro batera ere udareak ebaki, eta ondoren barrena hustu.
- 5- Azpila ardozukrez estali. Udareak gainean jarri. Esnegainez bete eta txurtenez estali. Azpila esnegain harrotuaz apaindu eta intxaurrak inguruan jarri.



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarraeta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

Joxe Mari ITURRALDE

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81

Jaunartzeak gora eta behera

Edozein aukerari atera nahi izaten dio bere etekina kontsumo eremuko edozein antolakuntzak, baita printzipio etiko guztien aurka jokatu beharko badu ere hori lortzeko. Horrelatsuko zerbait gertatzen da, nire eritziz behintzat, jaunartzeen inguruan eratu den festa-giroarekin (periarekin esatera ere ausartuko nintzateke ni neu).

Kristau pentsakerak irakasten digunez, elkarrekiko maitasunaren sakramentua da eukaristiarena. Eta gurtzean josi zutenaren aginduz "elkarrekiko maitasunarena" da kristauen oinarritzko mandamendua. Kristauen artean elkarrekiko maitasunak duen esanahiaren eta garrantziaren giroan eta bizibidean txertatzea adieraziko luke haur hazitxoaren lehenengo jaunartzeak. Zentzu horretan bidezkoa da gertakizun hori festa-giroan ospatzea "lagun hurkoarenganako maitasunaren" espirituan bizi nahi duen familian.

Baina ez! Kasu ugarritan -"ugarienetan" dionik ere bada gure artean- ez da

horrelatsuko esperituaren arrastorik ere somatzen haurra lehenengo jaunartzeraren daramaten familietan. Elkarrekiko lehia, eta lehia gogorra, da gaur nagusitzen den oinarritzko mandamendua, oinarritzko araua. Eta giro eta ingurune horretan hazi eta hezi nahi ditu asko eta askok bere seme-alabak. Baina jaunartzea egin behar dugu; horrelaxe erakutsi ahal izango dugu-eta, besteak baino gehiago garelako: jantzi dotoreagoa eta garestiagoa, bazkari hornitua goa eta ahalik eta jatetxerik eleganteean, oparirik deigarrienak eta abar. Eta guzti hori egunero milaka haur gosez eta gaitzez hiltzen ari direla dakigun mundu batean. Tokitan geratzen da "lagun hurkoarenganako maitasunaren" mandamenduaren espiritua. Gizakia dela bere erizpideen aurka joka dezakeen izaki bakarra dioen eritzia baieztatu baino ez da egiten horrela.

Egunkaria Lontxo Oihartzabal
Maiatzak 26

MERKATU TXIKIA
BILLABONA
Katakume jaio berriak oparitzen ditut. Edurne. ☎ 69 09 91

ALFARO
J A T E T X E A
EGUNEROKO MENUA
Larramendi kalea z/g
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

MAPFRE
ASEGURUAK
ZURE
AURREZKIENTZAKO
MAPFRE
SUPERKONTUA
ERRETENTZIORIK
GABE
Xabin Mujika Tolaretxipi
Kale Berria, 11 - ☎ 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - ☎ 59 23 07
Faxa 30-00-85
ANDOAIN

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA
LOATZO
ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA
JOXERRA GARMENDIA MUJIKA
IBON GARMENDIA UGARTE
Antxin kalea, 3 behe - ☎ 69 39 13 - Faxa 69 38 43 BILLABONA

HONDA
YAMAHA
KAWASAKI
SUZUKI

AZKAIN
MOTOAK

MOTUL
FERODO
NZI
CASTROL
DAINESSE
AGV

• MOTORRETARAKO AKZESORIOAK • NEUMATIKOAK
• MOTORE AZTERKETAK

Eskeintza berezia eta mugatua.
Edozein motor erosita:
EURODISNEY-era bi pertsonentzako bidaiara eta sarrerak.
Miarriztetik hegazkinez.

UBILOS AUZOA - 56.POLIGONOA - 12 zenb ☎59 14 13 ANDOAIN

ALUSTIZA baserria
☎ 943 - 690361 20150 AMASA

NEKAZALTURISMOA
J A T E T X E A

Agenda

ERAKUSKETAK

ANDOAIN

Ekainak 16-26: Zeramika eta Arte aplikatuetako ikasleen erakusketa Kultur Etxean.

ZIZURKIL

Ekaina: Kultur Etxeko tailerren lanen erakusketa.

LEHIAKETA

Gizabide Fundazioak antolatutako Jose Maria Arizmendarreta X. idazlan lehiaketa. Gaia: **Tolerantzia eta Euskal Herria**. Irakaskuntza Er-tainetako edozein ikaslek har dezake parte. 150.000-20.000 pezeta bitarteko sei sari. Lanak entregatzeko epea: 1995-11-7. Lekua: Gizabide Fundazioa. Lar-rin Plaza 1. Aretxabaleta 20.550. ☎ 79 31 32/ 79 79 22.

IBILALDIAK

BILLABONA

Ekainak 27- 28: Aizkardi mendi tal-deak antolatuta **Bachimala (3.177m)-Posets (3.375m) ibilaldia**.

MUSIKA

ANDOAIN

Ekainak 17: Erreka taldearen kontzertua Goikoplazan 23.00etan.

IKASTAROAK

BILLABONA

Ekainak 19-Uztailak 7: Sendabe-larren ikastaroa. Astelehenetik osti-

ralera 3 ordu egunean. 20 plaza. Irakas-lea: Laura Gurbindo. Informazioa eta izenematea: Kultur Etxean.

Ekaina: Musika tailerra: Santio jaietako konpartsa. Ikasleek era guz-tietako musikatresnak egingo dituzte material birziklatua erabiliz. Era berean beren teknikak eta erabilera ikasiko di-tuzte. Irakaslea: Patxi Hernando Otxe.

BESTE

BILLABONA

Ekainak 27-28-29: Elkarrik anto-latutako **Euskal Herriaren historia-ri** buruzko hitzaldiak Gurea zinema aretoan.

ZIZURKIL

Uztailak 3-28: "Oporretan eus-ka-raz" euskaraz bizi eta jolasteko. 3-10 urte bitarteko neska mutilei zuzen-duta. Izenematea: Aurrerako Udal Bu-legoak.

SAN JUAN JAIK

ANDOAIN

Ekainak 23:

20.00: Alberto Agirrek eskainitako **sal-be gorena** San Martin elizan.

22.30: **Txupinazoa** eta San Juan sua. Inttui abesbatzaren eta Urki dantza tal-dearen emanaldia.

23.00: Pilota jaialdia.

23.30: Trabuko taldearekin dantzaldia.

Ekainak 24:

10.00: Zesta punta eta eskupilota finalak.

12.00: Axeri dantza.

16.00: Mountain-Bike jaitsiera Belkoainen.

17.30: Herri kirolak.

19.30: Bertsolari jaialdia.

24.00: Tarantella orkestarekin dantzaldia.

Ekainak 25:

18.00: Haur danborrada.

19.00: Toka lehiaketa helduentzat.

21.00: Ingeniari Eskolako tuna.

23.00: Gaubela taldearekin dantzaldia.

Ekainak 26:

17.30: Kiki, Moko eta Koko pailazoak.

19.30: Egan taldearekin dantzaldia.

KURTSO AMAIERAKO JAIK P.M. OTAÑON

Ekainak 25:

10.30: Buruhandiak, futbola eta bo-leibola.

10.30: Pilota finalak eta jolasak.

12.30: Bukaldiren saioa.

13.00: Halterofilia.

14.00: Bazkaria.

16.00: Ikasleen emanaldiak.

17.30: Trikitixa eta gimkana.


18.30: Aiuma musika taldea.

Erakusketa eta tonbola.

ZINEMA

GUREA ZINEMA BILLABONA

"Tierra y libertad"
"Solo ellas"



AIURRI

BETERRIKO
ALDIZKARIA



M. LARRAMENDI

*Kultur bazkunak
Argitaratzen du*

UDALEN BABES ETA LAGUNTZAREKIN

ANDOAIN



BILLABONA



ZIZURKIL




ASTEASU



LARRAUL



ADUNA



GURE ESPEZIALITATEA:

BIDEOGINTZA

- Bideogintza industrialia
- Ezkontzak
- Bideo zinten arteko kopiak
- Zinetik bideora kopiak

ARGAZKIGINTZA

- Anpliazioak
- Zuri beltzeko errebelatua
- Estudioko argazkiak
- Ezkontzak

SAN JUAN jai zoriontsuak opa dizkizuegu

**B
I
K
O
T
Z**

FOTO-BIDEO-ARGAZKI

San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue...


Lentzeria, oihal eta bainujantziak

Anate - Berr



INAXI

GOZOTEGIA
IZOTZTEGIA



IRULEGI

ORDULARI
BITXITEGI



HEGOABIL

Trapu zaharrak sutara eta zu Sanjuanetara

AGUSTIN DE LEITZA 3 eta 5